

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Zerga-egoitza

Ebazpena: R 29/2011

Espedientea: 33/2008

Vitoria-Gasteizen, 2011ko abenduaren 22an

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna presidente zuelarik, eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekide, honako hau

ERABAKI DU

1. ENTITATEAREN (IFZ: NNNNNNN-LETRA) zerga-egoitza dela-eta Estatuko Zerga Administrazioko Agentziaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean sortutako gatazkari buruz, 33/2008 espedientea

I. AURREKARIAK

Estatuko Zerga Administrazioko Agentziak (EZAA) planteatu zuen gatazka, 2008ko maiatzaren 21eko datako idazkiaren bidez. Hurrengo egunean egin zen Arbitraje Batzorde honetan idazkiaren sarrera-erregistroa eta 2008ko irailaren 12an onartu zen izapidetzeko. Alegazioak aurkeztu zituen Bizkaiko Foru Aldundiak, alde batetik, 2008ko azaroaren 29ko data duen idazki baten bitartez (2008ko azaroaren 4a sartu zen Arbitraje Batzordean), eta espedientea erakutsi eta gero, alegazioen idazkiak aurkeztu zituzten EZAAk, 2009ko martxoaren 16ko datako idazki baten bitartez (martxoaren 18ko sarrera-erregistroa), Bizkaiko Foru Aldundiak, 2009ko martxoaren 8ko idazkia baten bitartez (martxoaren 20ko sarrera-erregistroa) eta 1. ENTITATEA (1. ENTITATEA aurrerantzean) entitateak, 2009ko martxoaren 28eko idazki baten bitartez (egun bereko sarrera-erregistroa).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Zerga-egoitza

Espedientea kontuan hartuta, 1. ENTITATEA sozietateari dagozkion egitate hauek azpimarratu nahi ditugu, garrantzitsuak baitira gatazka hau konpontzeko:

a) Bilbon sortu zen 2002ko uztailaren 26an eta 2. ENTITATEA (IFZ: NNNNNNN-LETRA), Madrilgo 1. HELBIDEA duena, eta 3. ENTITATEA, nazionalitate frantsesa eta helbide soziala 1. UDALERRIAN duena, dira bazkide sortzaileak;

b) Bilboko 2. HELBIDEAN dago egoitza soziala eta sozietatearen xedea da enpresak sustatzea eta indartzea. Zentzu horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak enpresak sustatzen dituzten sozietateen araubide berezia onartu zuen, 2002ko apirilaren 29ko 1308/2002 Foru Aginduaren bitartez.

c) 1. ENTITATEAREN helburu soziala enpresen sustapena da eta, horretarako, enpresen kapital sozialean parte hartzen du, partaide den sozietateek jaulkitako errenta finkoko tituluak harpidetzen ditu, kredituak ematen dizkie eta partaidetutako sozietateei aholkularitza eta laguntza teknikoa ematen die.

d) 2004ko abenduaren 31n kapital soziala, behin baino gehiagotan zabaldu eta gero, euro bateko ZENBATEKORA iristen da eta hauek dira bere bazkideak eta bakoitzaren partaidetzak:

- 4. ENTITATEA (IFZ: NNNNNNN-LETRA), % 51,93, Madrilgo 3. HELBIDEA da bere helbidea.

- 5. ENTITATEA (IFZ: NNNNNNN-LETRA), % 13,07, Madrilgo 3. HELBIDEA da bere helbidea.

- 6. ENTITATEA (IFZ: NNNNNNN-LETRA), % 24,99, Frantzian du helbidea.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Zerga-egoitza

- 7. ENTITATEA (IFZ: NNNNNNN-LETRA), % 4,99, 2. UDALERRIAN (Asturias) du helbidea.

- 8. ENTITATEA (IFZ: NNNNNNN-LETRA), % 5,01, 3. UDALERRIAN (Gipuzkoa) du helbidea.

- Merkataritza Erregistroaren eta Batzar Orokorren Akta Liburuaren arabera, batzuetan Bilbon egin dira batzarrak eta Madrilen beste batzuetan.

e) Frantziako nazionalitatea zuten eta helbidea Frantzian zuten lau pertsona fisikok eta nazionalitate espainoleko zortzi pertsonak (bost pertsona fisiko, helbidea Madrilen dutenak eta hiru pertsona juridiko, sozietatearen helbidea Bizkaian dutenak, nahiz eta beren ordezkariak Madrilen duten bizilekua) osatzen zuten jatorrian Administrazio Kontseilua:

- 1. IZENA ETA ABIZENAK (IFK: NNNNNNN (LETRA)), Madrilgo 4. HELBIDEA da bere helbidea.

- 2. IZENA ETA ABIZENAK (IFK: NNNNNNN (LETRA)), Madrilgo 5. HELBIDEA da bere helbidea.

- 3. IZENA ETA ABIZENAK (IFK: NNNNNNN (LETRA)), Madrilgo 3. HELBIDEA da bere helbidea.

- 4. IZENA ETA ABIZENAK (IFK: NNNNNNN (LETRA)), Madrilgo 6. HELBIDEA da bere helbidea. Gainera, Administrazio Kontseiluko idazkari da eta 4. UDALERRIKO (Madril) 7. HELBIDEAN du bere egoitza soziala.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Zerga-egoitza</i>

- 5. IZENA ETA ABIZENAK (IFK: NNNNNNN (LETRA)), Madrilgo 6. HELBIDEA da bere helbidea. Gainera, Administrazio Kontseiluko lehendakari da eta 4. UDALERRIKO (Madril) 8. HELBIDEAN du bere egoitza soziala.

- Eta 9. ENTITATEA (IFK: NNNNNNN (LETRA)) sozietatea, 10. ENTITATEA (IFK: NNNNNNN (LETRA)) sozietatea eta 11. ENTITATEA (LETRA)NNNNNNNN sozietatea. Guztiek 5. UDALERRIAN (Bizkaia) dute helbidea eta ordezkari hauek dituzte, hurrenez hurren: 4. IZENA ETA ABIZENAK, 5. IZENA ETA ABIZEAK eta 3. IZENA ETA ABIZENAK; guztiak Madrilen helbideratuta daude.

f) 2004ko uztailaren 28ko eskritura publikoaren arabera, Administrazio Kontseilua honako bederatzi kide hauek osatu zuten beranduago:

- 10. ENTITATEA (IFK: NNNNNNN (LETRA)), Administrazio Kontseiluko lehendakari izendatu zutena. 5. UDALERRIAN (Bizkaia) dago egoitza soziala eta bizilekua Madrilgo 6. HELBIDEAN duen 5. IZENA ETA ABIZENAK jaunak/andreak ordezkatzeko du.

- 11. ENTITATEA (IFK: NNNNNNN (LETRA)). 5. UDALERRIAN (Bizkaia) dago egoitza soziala eta bizilekua Madrilgo 6. HELBIDEAN duen 4. IZENA ETA ABIZENAK jaunak/andreak ordezkatzeko du.

- 12. ENTITATEA (IFK: NNNNNNN (LETRA)), Madrilgo 6. HELBIDEAN dago egoitza soziala eta bizilekua helbide berean duen 5. IZENA ETA ABIZENAK jaunak/andreak ordezkatzeko du.

- 13. ENTITATEA (IFK: NNNNNNN (LETRA)). 6. UDALERRIAN (Bizkaia) dago egoitza soziala eta bizilekua Madrilgo 6. HELBIDEAN duen 4. IZENA ETA ABIZENAK jaunak/andreak ordezkatzeko du.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Zerga-egoitza</i>

- 14. ENTITATEA (IFK: NNNNNNN (LETRA)). 5. UDALERRIAN (Bizkaia) dago egoitza soziala eta bizilekua Madrilgo 3. HELBIDEAN duen 3. IZENA ETA ABIZENAK jaunak/andreak ordezkatzzen du.

- 15. ENTITATEA (IFK: NNNNNNN (LETRA)). 7. UDALERRIAN (Bizkaia) dago egoitza soziala eta bizilekua Madrilgo 3. HELBIDEAN duen 3. IZENA ETA ABIZENAK jaunak/andreak ordezkatzzen du.

- 8. ENTITATEA (IFK: NNNNNNN (LETRA)). 3. UDALERRIAN (Gipuzkoa) dago egoitza soziala eta bizilekua Luxenburgon duen 6. IZENA ETA ABIZENAK (IFK: NNNNNNN (LETRA)) jaunak/andreak ordezkatzzen du.

- 16. ENTITATEA (IFK: NNNNNNN (LETRA)). 8. UDALERRIAN (Gipuzkoa) dago egoitza soziala eta bizilekua Madrilgo 9. HELBIDEAN duen 1. IZENA ETA ABIZENAK jaunak/andreak ordezkatzzen du.

- 17. ENTITATEA (IFK: NNNNNNN (LETRA)), Madrilgo 9. HELBIDEAN dago egoitza soziala eta bizilekua Frantzian duen 7. IZENA ETA ABIZENAK jaunak/andreak ordezkatzzen du.

Adierazitako guztiak berdin jarraitzen du gatazka planteatu den egunean.

g) 1. ENTITATEAREN ahal-ordunei dagokienez, espedientearen arabera honako hau ondoriozta daiteke:

- 4. IZENA ETA ABIZENAK (IFZ: NNNNNNN(LETRA)) jaunak/andreak, bizilekua Madrilgo 6. HELBIDEAN duenak, Madrilen emandako 2003/02/10 datako eskritura publiko bidez, ahalordea eman zion helbide profesionala 6. HELBIDEAN duen 8 IZENA ETA ABIZENAK (IFZ: NNNNNNN(LETRA))

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Zerga-egoitza

jaunari/andreari; eta Madrilen emandako 2004/11/18 datako eskritura publiko bidez ahalordea eman zion helbide profesionala 9. UDALERRIKO (Bizkaia) 10. HELBIDEAN duen 9. IZENA ETA ABIZENAK (IFZ: NNNNNNN(LETRA)) jaunari/andreari.

h) 2005eko azaroaren 24an EAEko EZAaren Ordezkaritza Bereziko Eskualdeko Ikuskaritza Bulegoko aktuario bat bertaratu zen 1. ENTITATEAREN egoitzan, Bilboko 2. HELBIDEAN, eta 10. IZENA ETA ABIZENAK (IFZ: NNNNNNN(LETRA)) jaunarekin/andrearekin egon zen eta dagokion diligentzia egin zen. Honako hau adierazten da bertan:

- 1. ENTITATEA sozietateko enplegatua da, nahiz eta aipatutako entitatean eta 18. ENTITATEAN (IFZ: NNNNNNN(LETRA)), ondoko Sailean dagoenean, lan egiten du.
- Madriletik eramaten da kontabilitatea eta bertatik egiten dira zerga-aitorpenak, hain zuzen ere 6. HELBIDEAN dagoen 1. ENTITATEAREN Finantza Saitetik.
- Sozietateari buruzko dokumentazioa (eskritura publikoak) eta sozietatearen dokumentazio orokorra (Akta Liburua, Bazkideen Liburua) Madrilgo 6. HELBIDEAN daude.
- Bera da helbide horretan dagoen 1. ENTITATEKO enplegatu bakarra eta ezinezkoa da jakitea Madrilen enplegatu gehiago ote dagoen.
- Administrari-kontratu bat du eta Madrilen egiten da bere nomina.
- 1. ENTITATEKO bazkide diren sozietateen ordezkariak noizean behinka helbide horretara joaten dira.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Zerga-egoitza</i>

- Azken finean, sozietatearen zuzendaritzaz arduratzen diren pertsonak Madrilgo 6. HELBIDEAN egoten dira.

i) Aipatutako langileak 1. ENTITATEARI dagozkion eskritura publikoak erakutsi zituela eta jatorrizkoak Madrilen daudela esan zuen. Gaineratu zuenez, bulegoetan ez zegoen BEZaren aitorten, atxikipen eta Sozietateen gaineko Zergaren aitortzenen jatorrizko agiririk edo fotokopiarik, ezta Kontabilitate Libururik ere. Horrez gain, 02/10/17ko fax bat erakutsi zuen. Fax horren bidez, 10. IZENA ETA ABIZENAK jaunak/andreak 11. IZENA ETA ABIZENAK jaunari/andreak (zerga-egoitza Madrilen duen 18. ENTITATEAREN enplegatua) jakinarazten dio 1. ENTITATEAREN errolda-aitortzenaren inprimakia, alde zurretik berak bidalitakoa, mezulari bidez bidali dela, Foru Ogasunean aurkeztu eta gero. Bestalde, Madrilgo 02/10/21 data duen idazkia aurkeztu zen. 11. IZEN ETA ABIZENAK jaunak/andreak sinatuta eta agertutakoari zuzendua dago, eta 1. ENTITATEARI dokumentazio jakin bat bidali zaiola jakinarazten da bertan (eratze-eskrituraren jatorrizko agiria eta behin betiko IFZ lortzeko behin-behineko IFZ, 300 eredu aurkezteko, 845 eredu Bilboko Udalean aurkezteko eta 2. HELBIDEKO bulegoen salerosketa-eskrituraren kopia); era berean, izapideak egin ondoren aipatutako dokumentazioa itzultzeko eskatzen da. Horrez gain, agertutakoari, 11. IZENA ETA ABIZENAK jaunari/andreak, zuzendutako faxa erakutsi zuen. Mezulari bidez aipatutako dokumentazioa itzultzen diola jakinarazten zaio bertan eta 1. ENTITATEAK EJZn alta eman duela frogatzeko 845. ereduaren fotokopia bidaltzen da. Azken horren arabera, 2002/10/01ean hasi zen jardura eta jakinarazpenak bidaltzeko helbidea Madrilgo 6. HELBIDEA da eta telefonoa ere Madrilgoa da.

j) 2005eko abenduaren 2an 10. IZENA ETA ABIZENAK jaunaren/andrearen adierazpenen notario-akta aurkeztu zen (espedientearen 480. orrialdetik 483.era bitarteko orrialdeak). Bertan adierazten denez, hainbat akats egin

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Zerga-egoitza

zituen 2005/11/24ko diligentzian jasotako adierazpenetan, izan ere, nahastu egin zen: bere adierazpenak 18. ENTITATEARI dagozkio, eta ez 1. ENTITATEARI.

k) 2006ko uztailaren 5ean Bizkaiko Foru Ogasunaren Ikuskaritzako aktuario bat bertaratu zen 1. ENTITATEAREN egoitzan (Bilboko 2. HELBIDEA). 10. IZENA ETA ABIZENAK jaunarekin/andrearekin egon zen eta aktuarioak eskatuta, 2002, 2003 eta 2004ko kontabilitate-liburuak erakutsi zizkion, baita 2002tik 2205era luzatutako eta jasotako fakturen erregistro-liburuak eta luzatutako eta jasotako fakturak ere. Fakturretan agertzen den helbidea aipatutako Bilboko helbidea da. 10. IZENA ETA ABIZENAK jaunak/andreak adierazi zuenez, aspaldion 19. ENTITATEAK eramaten du kontabilitatea eta, lehenago, 1. ENTITATEAREN informatika-programa batekin sarean lan egiten zen. Bestalde, Administrazio Kontseiluaren bilerak egiteko erabiltzen den gela erakutsi zion aktuarioari (Bilbon egiten dira bilerak) eta 2005eko abenduaren 2ko notario-aktako edukia berretsi zuen eta EZAako funtzionarioak bulegoetara (18. ENTITATEAK Bilbon duen egoitza) 1. ENTITATEAREN ondoan dagoen 11. Sailaren atetik sartu izanak eragin zuela azpimarratu zuen.

l) Hainbat ekitalditan aurkeztutako aitortpenak (110., 190., 123., 193., 300., 390. eta 347. ereduak); batzuk Madrilen aurkeztu dira eta beste batzuk Bizkaian.

m)1. ENTITATEAK irekitako kontuen titulartasunari buruzko datuak, bestiek beste: BBVak Bilbon duen sukurtsal batean irekitako kontu baten datuak, Banestoren Banku Korporatiboaren bulegoan irekitako beste batenak eta Banestok Madrilen duen Banku Korporatiboaren bulegoan irekitako balio-kontu batenak.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Zerga-egoitza

n) 2002 eta 2003 ekitaldietako urteko kontuetan, Merkataritza Erregistroan aurkeztutakoetan, Madrilgo telefono bat adierazi da harremanetarako telefono gisa. Aipatutako hirian formulatu dira, 03/03/27 eta 04/03/04 egunetan, eta Madrilen egindako Batzar Orokorretan onartu dira, 03/05/27 eta 04/06/29 egunetan, hurrenez hurren, eta 1. ENTITATEKO Administrazio Kontseiluko idazkariak luzatutako ziurtapenek Madrilgo data dute, eta Madrilgo notarioek ziurtatzen dute, bi kasuetan, sinaduraren legitimitatea.

ñ) Espedientean Bilboko Abokatuen Elkargoko abokatu batek (1. ENTITATEAREN ordezkaria da) bidalitako mezu elektronikoa bat dago. 2006ko uztaileko 13ko data du eta Foru Aldundiko aktuarioarentzat da eta entitateak egiten dituen jarduerak eta ondoren zerrendatutako zereginak gauzatzeko modua zehazten da bertan:

I. Partaidetzak kudeatzea

A) Partaidetzak eskuratzea

- 2002an

1. 20. ENTITATEAREN (NNNNNNNN (LETRA)) % 26,01 eskuratu zen

2. 14. ENTITATEAREN (IFZ: NNNNNNNN (LETRA)) % 5 eskuratu zen; aipatutako sozietateak 10. UDALERRIAN (Bizkaia) du zerga-egoitza eta Bilboko notaritza batean egin zen eskritura publikoa.

Bi kasuetan, kontseilari ordezkariak hartu zuen partaidetzak eskuratzeko erabakia (ez da aipamenik egiten 2002ko Batzarraren edo Kontseiluaren aktetan)

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Zerga-egoitza

- 2003an

1. 21. ENTITATEA (NNNNNNNNN (LETRA)) eratu zen.

2. 22. ENTITATEA (NNNNNNNNN (LETRA)) eratu zen.

3. 21 ENTITATEAK eta 22. ENTITATEAK 23. ENTITATEAREN (NNNNNNNNN) aldeko ekarpena egin zuten eta % 7,92 jaso zuen sozietatearen kapital-gehikuntzan.

- 2004an

1. 2. ENTITATEA (NNNNNNNNN (LETRA)) xurgatu zen eta % 70 eskuratu zen 18. ENTITATEAN (xurgatutako entitatearen jabetzakoa) eta Bilboko notario baten aurrean egin zen bere eskritura publikoa.

2. 18. ENTITATEAREN % 30 eskuratu zen. Horretarako, 6. ENTITATEA (24. ENTITATEA) sozietate frantsesak ekarpen ez-diruzkoa egin zuen eta Bilboko notaritza batean egin zen eskritura publikoa.

3. 25. ENTITATEA (NNNNNNNNN (LETRA)) sozietatearen % 100 eskuratu zen, sozietatearen kapital-gehikuntzan egindako ekarpen ez-diruzkoaren bidez, eta Bilboko notaritza batean egindako eskritura publikoan dokumentatu zen.

4. 26. ENTITATEA sortu zen (NNNNNNNNN (LETRA)), eta 1. ENTITATEAK Bilbon duen ordezkariak egiten zuen merkataritza-jarduera eman zaio eta Bilboko notaritza batean egin da eskritura publikoa.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Zerga-egoitza</i>

5. 27. ENTITATEAREN (NNNNNNNN (LETRA)) % 15 erosi zitzaion 24. ENTITATEARI.

- 2005ean 28. ENTITATEA (NNNNNNNN (LETRA)) sozietatea sortu zen.

B) Dibidenduak kobratzea.

Normalean, Bilbon irekitako kontuetan (BBVA edo Banesto) kobratzen dira.

C) Partaidetzak saltzea

1. 18. ENTITATEAREN % 26 28. ENTITATEA sozietateari saldu zitzaion eta Bilboko notaritza batean egin zen eskritura publikoa.

2. 25. ENTITATEAREN % 100 saldu zen eta Bartzelonan egin zen eskritura publikoa.

II. Finantza-jarduera

1. Maileguak ematea. Partaidetzazko izaera dute garrantzitsuenek eta hiru hauek dira: bat, 2002an 20. ENTITATEARI emandakoa, 2 euroko ZENBATEKOAGATIK; beste bat 29. ENTITATEARI emandakoa, 3 euroko ZENBATEKOAGATIK; eta, hirugarren bat, 23. ENTITATEARI emandakoa, 4 euroko ZENBATEKOAGATIK. (Oro har, erabaki horiek administrazio-organoak hartzen ditu eta ez dira berariaz adierazten aktan).

2. Diruzaintzako soberakinak kudeatzea. Normalean, sozietate partaidetuen dibidenduen kobrantzetatik eta emandako maileguen itzultzeetatik lortzen dira. Soberakinak epe luzeko finantza-aktiboetan

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Zerga-egoitza

inbertitzen dira. 2004tik 9. IZENA ETA ABIZENAK jaunak/andreak egiten du lan hori, banku-entitateen aurrean ahalorde gisa, eta Bilboko bulegoetan (BBVA eta Banesto) irekitako kontuekin lan egiten du.

3. 2004ko maiatzean BBVak emandako mailegua, 4 euroko ZENBATEKOAGATIK; sozietateak Banco de Bilbao sukurtsal korporatiboan irekitako kontuan egin zen ordainketa.

III. Higiezin-jarduera

A) 2004-07-28an higiezina erosi zen, Bilbon egindako eskrituraren bitartez.

B) Higiezinaren zati bat alokatu zen. 2004ko irailaren 1ean kontratu pribatua sinatu zen Bilbon.

C) Kudeaketa arrunta. Erkidegoko gastuen ordainketa, kontratazioa eta hornikuntzen ordainketa, zerga-aitorpenak (BEZ). 1. ENTITATEKO langile bakarrak, 10. IZENA ETA ABIZENAK jaunak/andreak, egiten du.

IV. Administrazio-lana (barrukoa)

Kontabilitatea eramatea, dokumentazioa eta egiaztagiria jasotzea eta kontserbatzea, eguneroko banku-kudeaketa, administrazio-izapideak eta abar. Funtsean, sozietateko langile bakarrak egiten ditu lan horiek, baita 9. IZENA ETA ABIZENAK ahalordeak ere. 2005etik aurrera, 19. ENTITATEA enpresarekin kontratatzen dira kontabilitatea egiteko lanak, Bilbon duen ordezkariarekin, hain zuzen ere. 2004 arte 10. IZENA ETA ABIZENAK jaunak/andreak prestatzen zuen kontabilitatea, 11. IZENA ETA ABIZENAK jaunaren/andrearen (18. ENTITATEKO administrazioko langilea) laguntza teknikoarekin.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Zerga-egoitza

o) 2006ko uztailaren 12an Bizkaiko Foru Aldundiko Foru Ogasunaren bulegoetan egindako diligentzian, 9. IZENA ETA ABIZENAK jaunak/andreak, 1. ENTITATEKO ahalordeak, adierazi du sortu zenetik sozietatearen egoitza soziala dagoen Bilboko 2. HELBIDEAN egiten dela administrazio-kudeaketa eta negozio-zuzendaritza, eta bi etapa bereizi ditu enpresaren bizitzan:

- hasteko, 2002 eta 2003 urteak: sozietatearen enpresa-jarduera nahiko mugatuta dago eta sozietateak Bilbon zituen langileek etengabe eskatzen zieten laguntza 18. ENTITATEAK Madrilen zituen bulego nagusietan lan egiten zuten langile teknikoei.
- ondoren, 2004tik aurrera: sozietateak partaidetzako maileguak ematen ditu eta taldeko enpresak finantzatzeko jarduera garrantzitsua garatzen du.

p) Kontseilukideek Bilbora hegazkinez egindako bidaien egiaztagiria eta Bilbon egindako egonaldien egiaztagiria.

EZAA ez zegoen ados 1. ENTITATEAREN zerga-egoitza aipatutako Bilboko helbidean jartzearekin eta helbide hori aldatzeko prozedura hasi zuen. Prozedura horren izapideak gatazkaren azalpen-idazkian deskribatzen dira zehaztasunez eta idazki horrek eragindako desadostasuna dela-eta hasi da prozedura hau.

EZAAk Arbitraje Batzorde honi eskatzen dio "egokitzat jotzeko 1. ENTITATEA (IFZ: NNNNNNNN (LETRA)) entitatearen helbide-aldaketa, gaur egungo Bilboko (Bizkaia) 2. HELBIDEA helbidetik Madrilgo 6. HELBIDERA, 2002/07/26tik aurrerako eraginarekin, hain zuzen ere, sozietatea sortu zen egunetik hasita". Eskaera horren aurrean, Bizkaiko Foru Aldundiak Arbitraje Batzordeari eskatu dio (petitum gisa ulertu behar da bere alegazioen idazkia "amaitzen" duela) aitortzeko "sozietatearen zerga-egoitzak, sortu zenetik, sozietatearen ibilgetu bakarra dagoen lurraldean egon behar

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Zerga-egoitza

duela: Bilboko 2. HELBIDEAN". Eskaera bera egin du entitate interesdunaren ordezkariak.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Aipatutako gatazka metatuak konpontzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren (EAEEI) arauak aplikatu behar dira (2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartu zuen EAEEI), bertan definitzen baita pertsona juridikoen zerga-egoitza. Honako arau hauek bete behar dira:

43. artikulua. Ohiko bizilekua eta zerga-egoitza

(...)

Laugarrena. Ekonomia Itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek zerga-egoitza Euskadin dutela uste izango da:

(...)

b) Pertsona juridikoak eta Sozietateen gaineko Zergaren mendean dauden gainerako erakundeak, Euskadin baldin badute sozietate-egoitza eta, betiere, sozietate-egoitza horretan baldin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozio-zuzendaritza. Edo bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten bada. Irizpide horiek erabilita bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan".

(...)

2. Gatazka hau konpontzeko, beraz, EAEEIren 43.4.b) artikulua araberako sozietate interesdunen administrazio-kudeaketa eta negozio-zuzendaritza EAEn, Bilbon

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Zerga-egoitza

zehazki, edo lurralde erkidean, Madrilen zehazki, zentralizatua ote zegoen jakin behar da. "Administrazio-kudeaketa eta negozio-zuzendaritza" kontzeptu juridiko zehaztugabe bat da eta berau zehazteko, kasuan nahastutako ezaugarri guztiak hartu behar dira kontuan. Leku hori zehaztea ezinezkoa den kasuetan bakarrik hartuko litzateke kontuan aipatutako arauko 2. parentesian aurreikusitako ibilgetu-balio handiena kokatzen den lekua ordezkatzeko irizpidea. Hain zuzen, hori da Bizkaiko Foru Aldundiak zein 1. ENTITATEAK egin nahi dutena, izan ere, beren iritiz, kontuan hartuta kasuan batera gertaturiko alderdiak, ezinezkoa da irizpide nagusia aplikatzea, hau da, ezinezkoa da "administrazio-kudeaketaren eta negozio-zuzendaritzaren" kokapena zehaztea, ezin baita zehazki adierazi non dagoen zinez zentralizatua, foru-lurraldean ala lurralde erkidean.

3. Hala ere, hori egin aurretik, 1. ENTITATEAK aurkeztutako alegazioen artetik bi aztertu behar dira: bat, 1. ENTITATEAREN zerga-egoitza egiaztatzekeko prozeduran izandako gehiegizko irregulartasunak eta atzerapenak eta, bestea, gatazka epez kanpo planteatu izana. Gauzak garbi esan ditzagun: ez dugu ez bat ez bestea kontuan hartuko.

a) Lehen alegazioari dagokionez, ez dugu irregulartasunik ikusten helbide-aldaketa izapidetzeko orduan; bereziki, kontuan hartuta kasu honen ezaugarriak, ez dugu uste prozedurak gehiegi iraun duenik; horrela balitz, ez dago argi gatazka honen esparruan zein ondorio negatibo eragingo zen enpresa interesdunaren egoera juridikoaren gainean.

b) Antzeko zerbait gertatzen da epez kanpokotasunari dagokion alegazioarekin. Izan ere, gatazka hau 2008ko maiatzaren 22an erregistratu zen Arbitraje Batzorde honetan, eta egun horretarako oraindik amaitu gabe zegoen bere Araudiko 13.2 artikuluan aurreikusitako hilabete bateko epea, epe horrek ezin baitu hasi helbidea aldatzeko prozedura amaitu arte. Kasu honetan, apirilaren 22an amaitu zen aipatutako prozedura (espedientearen 928. or.), hortaz, epea

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Zerga-egoitza

hurrengo egunetik aurrera hasten da, hau da, apirilaren 23tik aurrera, 1992ko azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean xedatzen denaren arabera.

4. Gatazka sakonkiago ezagutzeko, gogora dezagun 2011ko urriaren 13ko Auzitegi Gorenaren Epaia (5908/2000 zk. kasazio-errekurtsoa): "Zerga-egoitza, egoitza sozialaren kontzeptutik independentea dena, eta egoitza soziala berdinak dira, baldin eta egoitza sozialean zentralizatuta badago zinez administrazio-kudeaketa eta negozio-zuzendaritza; aitzitik, kudeaketa edo zuzendaritza egiten den lekua hartuko da kontuan. Zentzu horretan, Arbitraje Batzorde honek 2009ko martxoaren 6ko 4/2009 Ebazpenean jada adierazi zuen moduan: "Pertsona juridikoen zerga-egoitza zehazteko ez da kontuan hartu behar bere egoitza soziala, baizik eta bere administrazio-kudeaketa eta negozio-zuzendaritza zentralizatuta dagoen lekua, eta hori erabakitzea oso zaila da, ez baitira definitzen bere ezaugarriak. Zerga-egoitzaren kokapena ziurtatzeko, beraz, leku jakin batean aipatutako ezaugarriak daudela frogatu behar da. Froga hori ez da froga tasatu bat; are gehiago esan daiteke: lege-mailan ez da inolako jarraibiderik ezartzen; ez da aipamenik ere egiten".

5. Administrazio-kudeaketa eta negozio-zuzendaritza egiten den lekua alderdi faktiko bat denez, kontuan hartu behar dira espedientean jasotako froga-elementuak (administratzaile eta ahalordeen zerga-egoitza; entitatearen zerga-egoitzara egindako bisiten emaitza, EZAAko zein Bizkaiko Foru Aldundiko ikuskariek egitateak jasotzeko egindako txostenak eta diligentziak, sozietatearen administrazio-kudeaketa egiten den bulegoaren kokapena, entitatearen kontratazio orokorra egiten den bulegoaren kokapena, kontu korronteak eta abar), izan ere, guztiak dira, edo izan daitezke, entitatearen zerga-egoitza zehazteko egiazko datu garrantzitsuak.

6. Esan dugun moduan, espedienteak dioenez, Merkataritza Erregistroaren eta Batzar Orokorren Akta Liburuaren arabera, batzuetan Bilbon egin dira batzarrak eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Zerga-egoitza

Madrilen beste batzuetan. Bilerak hiri batean bestean baino gehiagotan egitea ez da erabakigarria xede dugun arazoa konpontzeko, izan ere, Batzar Orokorrei ez dagokie sozietateak kudeatu, administratu edo zuzentzea. Espedientean jasotako aktak aztertuz gero esan daiteke, espedienteko datuak ez direla nahikoa administrazio-kudeaketari eta negozio-zuzendaritzari buruzko erabakiak unean bertan hartzen direla ondorioztatzeko; beraz, hiri batean egin zein beste batean egin, ez da garrantzitsua xede dugun arazoa argitzeko.

7. Ez zuten froga gisa balio handiegirik lortu Bizkaiko Foru Aldundiko Ikuskaritzak egindako txostenetan adierazitako alderdi batzuk, izan ere, entitateko aholkulariak aipatutako Ikuskaritzara bidalitako mezu elektronikoen baten edukia bakarrik adierazten zen eta bertan adierazitako informazioarekin batera ez da aipatutako mezu elektronikoen edukia berresteko beharrezko frogarik aurkezten; Aldundiak mezu elektronikoen horretan adierazitakoa berretsi egiten du, besterik gabe.

EZAk adierazitako froga-defizita neurri batean bakarrik zuzentzen da, 1. ENTITATEAK 2009ko martxoaren 25ean egindako alegazioetan. Kasu horretan, hainbat agiri aurkezten dira, aipatutako mezu elektronikoen edukia babesteko.

Entitatearen administrazio-kudeaketa eta negozio-zuzendaritza Bilbon zentralizatuta dagoela ziurtatzeko aurkeztutako frogak ahulak dira eta froga-ahulezia hori ez da aldatzen 1. ENTITATEAK alegazioak aurkeztu eta gero. Zentzu horretan, adibidez, ez du garrantzirik 1971n, hau da, duela 30 urte, 18. ENTITATEAK entitatearen zerga-egoitzan dagoen lokala erosi izanak; ez du berriazko pisu erabakigarrikerik zerga-aitorpenak hiri batean (Madrilen) zein bestean (Bilbon) aurkezteak, izan ere, espedientearen arabera, gehienez ere administrazio-kudeaketaren zati bat non egiten den adieraziko luke; kontuetako mugimenduek ere ez dute argitzen eztabaidagaia; eta, azken finean, ez dute inolako baliorik, xede ditugun ondorioetarako, 18. ENTITATEA eta 1. ENTITATEA kokatzen diren sailen sarrerak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Zerga-egoitza</i>

erakusten dituzten argazki digitalek eta 1. ENTITATEAREN egoitza sozialaren eta zerga-egoitzaren bulegoak erakusten dituztenek.

Eskura eduki dugun dokumentazioa kontuan hartuta, honako hau ondoriozta daiteke: Bilbon zeregin gehigarriak eta dokumentu fiskal, administratibo eta sozialen kudeaketa-lanak bakarrik egin dira, eta ez da negozio-kudeaketan zuzenean parte hartzen eta ez da entitatearen xede sozialaren arabera kontratatzen edo jarduten, nahiz eta, batzuetan, eskriturak eman diren Bilboko notaritzatan.

8. Kontseilukideek hegazkinez egindako bidaien egiaztagiriei dagokienez, ez da frogatzen jarduera zehatz batekin erlazioa dutenik, hau da, Batzarrak egiteko bidaiak diren edo merkataritza-eragiketak egitekoak diren. Gauza bera esan daiteke egonaldietan izandako gastuei dagokienez (bazkariak).

9. Datu garrantzitsutzat jo dira, aitzitik, EZAAko Ikuskaritzak Bilboko egoitzara egindako bisita dela-eta luzatutako aktak. Entitate interesduna konturatu da akta horiek oso garrantzitsuak direla, eta hori kontuan hartuta, 10. IZENA ETA ABIZENAK jaunaren/andrearen adierazpenen notaritza-akta bat luzatu zen (2005eko abenduaren 10eko data) eta bertan adierazten da hainbat akats egin zituela 2005/11/24 diligentzian jasotako adierazpenetan. Zalantzarik gabe, balio frogagarri handiagoa dute hasierako adierazpenek ondorengo notaritza-aktan adierazitakoek baino, are gehiago kontuan hartuta dokumentu jakin batzuekin babestu zirela. Ondorengo notaritza-aktan izaera aldebakarra aitortzeko deklarazio bat islatzen da, eta, horregatik, Kode Zibilaren 1218 ex artikulua 1. paragrafoa arrazoitzen duen data eta gertaera barne hartzen dira bakarrik, baina ez adierazpenak berez, hortaz, hirugarrenen aurrean, entitateko langilearen adierazpenak froga bat dira eta berau baloratzeko orduan, kontuan hartu behar dira adierazitako ezaugarriak, eta frogarik egin bada, froga horien emaitza.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Zerga-egoitza

Egitan, nahiz eta langilearen adierazpena dokumentu publiko batean jaso den, ez du balio berezirik xede ditugun ondorioetarako, izan ere, ondoren adierazitako baldintzak hartu behar dira kontuan frogatuta gisa duten balioa baieztatuzko: une hartan deklarazioa egin zuen pertsona (espedientearen 890. or.), entitateko langile bakarra, entitateko ahalordearen alaba da eta adierazpenak egoitza aldatzeko prozedura hasi eta gero egin ziren. Hori dela-eta, hasierako adierazpenek balio handiagoa dute frogatuta gisa, are gehiago kontuan hartuta garai hartan dokumentu jakin batzuk aurkeztu zirela eta bertan adierazitakoa ez dela aldatu, ez orduan, ez ondoren.

10. Garrantzitsua da, halaber, 2006ko uztailaren 12an Bizkaiko Foru Ogasuneko bulegoetan aurkeztutako diligenzia, 1. ENTITATEKO 9. IZENA ETA ABIZENAK jaunak/andreak aurkeztutakoa, izan ere, nabarmen aitortzen da bertan hasiera batean 18. ENTITATEAK Madrilen dituen bulego nagusietan egiten zela kudeaketa. Zinez, beti egin izan da horrela, eta hori dela-eta, entitatearen administrazio-kudeaketa eta negozio-zuzendaritza Madrilen zentralizatuta dagoela ondorioztatzen dugu, izan ere, adierazitakoaz gain, kontuan hartu behar da Madrilen dutela bizilekua ahalordeek eta hiri horretan duela bizilekua Administrazio Kontseiluko kideen gehiengoak (bertan dute bizilekua aipatutako Kontseilua osatzen duten merkataritza-entitateen ordezkari pertsona fisikoek); era berean, Madrilen duten bizilekua entitateko kontseilari ordezkariak. Gure ondorioa bat dator gure 4/2009 Ebazpenean adierazitakoarekin (EZAAs bere alegazioetan aipatzen du), hain zuzen ere: "sozietate baten zerga-egoitza zehazteko orduan datu faktiko oso garrantzitsuak dira, edo izan daitezke, normalean entitatearen kontratazio orokorra egiaztatzen den bulegoaren kokapena, beste leku batzuetan egin daitekeenari kalterik egin gabe, garatutako jardueren arabera; kontabilitate nagusia etengabe egiten den bulegoaren kokapena; eta entitatearen administrazioaileen edo gerenteen zerga-egoitza, gizarte-eragiketarako behar den bezala egiaztatu eta ziurtatu ahal izateko kopuru nahikoa adierazita".

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2008	R29/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Zerga-egoitza

11. Azken finean, aurreko Zuzenbideko Oinarrietan adierazitako izatezko elementuen eta inguruabarren balorazio bateratuaren arabera, ondorio hauek atera ditzakegu: gatazka honen xede den entitatearen administrazio-kudeaketa eta negozio-zuzendaritza ez da Bilbon egiten, Madrilen baizik. Inguruabar gehienek egiaztatzen dute aipatutako ondorioa eta oso ahulak dira administrazio-kudeaketa eta negozio-zuzendaritza Bilbon egiten dela berresteko aurkeztutako datuak.

12. Gatazka honetako entitate interesdunaren administrazio-kudeaketa eta negozio-zuzendaritza entitatea sortu zenetik Madrilen egiten dela ondorioztatu dela kontuan hartuta, kasu honetan ez da ezarriko EAEEIren 43.4.b, 2. koma-arte, hau da, ez da ezarriko ibilgetuaren baliorik handiena non duen kontuan hartzeko irizpide ordezkatzaila.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

2002ko uztailaren 26an sortu zenetik, gatazka honen xede den sozietatearen zerga-egoitza Madrilen zegoela aitortzea, eta ez Bilbon (Bizkaia), non sozietatearen egoitza soziala dagoen.